

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Itziar Arzelus Arrieta

*Donostia,
Gipuzkoa
(1928)*

Aurkibidea



Biografia



Donostian jaioa, Hondarribi kalean. Zortzi urte bete arte bizi izan zen han, gerra etorri zen arte. Arantzazuko Amaren eskolan ikasi zuen, euskaraz. Amak ez zekien euskaraz, baina aita oso euskaltzalea zen: Ander Arzelus 'Luzear' idazle eta kazetaria; hainbat antzezlan prestatu zituen. Gerran ihesi joan behar izan zuten; besteak beste Bilbon egon ziren. Habana itsasontzian Frantziara joan ziren ama eta lau seme-alabak, eta ondoren Iparraldean bizi izan ziren, Azkainen lehenengo eta Donibanen gero. Bueltan, San Jeronimo kalera joan ziren bizitzera, eta Elizaranera joan zen eskolara. Aita, berriz, preso hartu zuten Santoñan. 1944. urtea arte ez zuten askatu, baina gero ere bestaldera joan behar izan zuten; hantxe hil zen, minbiziarekin. 'Perfumerias Dana' enpresarentzat lan egin zuen Itziarrek, Elbira Zipitriak isilpeko ikastoletan bere beharra zutela esan zion arte. Ikastola jarri zuen etxean. Gero Ikasbide ikastolan ibili zen, Amaran. Eta Orixen egin zituen azken urteak. 1951. urtean ezkondu zen, eta bost seme-alaba dauzka. Margotzea atsegin du.

Zintak

DON-060

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-11-12
- **Iraupena:** 81 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze - Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Gerra aurreko euskarazko eskolak

- **Erref:** DON-060/003
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:01:43. **Bukatu:** 00:04:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Etxaide kaleko ikastolara joan zen, hiru urterekin. Arantzazuko Amaren ikastola. Irakasle bere izeba bat zegoen, eta andereño Maxepa. Dena euskaraz ikasten zuten. Gerra hasi arte. Neska eta mutil elkarrekin gelan. Alde Zaharrean Muñoaren eskola zegoen.</p>

Transkripzioa

- Bai, Etxaide kalia zeon ikastola. Eta hara juten nitzan txikiyenetakua izango nitzan hiru urtekin edo.
- Eta Etxaide kaleko ikastola horren izena edo nola zan?
- Arantzazuko Amaren ikastola. Eta han zeon irakasle nere izeba bat, Bitorene. Eta ni ikastola hortakua, ikusten, argazkiya badakat. Bueno, arki... gero arkituko det, eta ikusiko det. E?
- Bai, bai, bai.
- Oso argazki politak daude. Hola denak talde osoakin.
- Eta hor euskerez erakusten zuten?
- Dena.
- Dena euskeraz?
- Dena euskeraz.
- Eta zenbat urtekin hasi ziñan zu eskolara juten?
- Ba, hiru urtekin.
- Hiru urtekin?
- Hiru urtekin hasi.
- Ta gerra etorri arte hor ibili ziñan?
- Nola?
- Gerra etorri arte? Hor ibili ziñan?
- Bai, bai. Eta gero, igesi giñan ya. Akabo, karo!
- Eta hor eskola, ikastola hortako andereñoak eta...
- Ni goatzen naiz nere izeba klaro, noski. Ta gero, goatzen naiz andereño Maxepa. Izena goatzen naiz. Andereño Maxepa eta beste bat bazan, baño ez naiz goatzen izena. Eta baditut oandikan lagunak eta hara juten zianak nerekin. Juten geanak... Ni naiz Euskadiko Orkestak harpideduna, eta nere onduan eotena exerita nerekin ibili zan ikastola hortan.
- Eta hor denak neskak ziñeten ikastola horretan?
- Ez, neska ta mutillak.
- Neska ta mutillak elkarrekin gelan?
- Bai, bai. Oso progres giñan. Bai, neska eta mutillak alkarrekin. Bai. Eta gero, ni ya ez naiz goatzen asko. Hain txikiya nitzan!
- Eta maistrak eta maixuak bazeuden ala?
- Andereñuak zian hor.
- Andereñuak. Bai. Gero, gero zeon beste ikastola bat Alde Zaharrean.
- Muñoarena.
- Muñoarena. Ta hara juten zan nere senarra zana. Eta hor bai zeuden

irakasleak, gizonak. Hori zeon? Juan de Bilbo kalean. Eta ze kale da oain daona Orixe... ikastola? Kanpanario, Kanpanario.

- Bai.

- Kanpanario kalean ere bai zegon. Eta hara juten zian neskak eta mutillak ere bai, baño karo nere senarra orduan nik ez nun ezautzen. Bera, txiki-txikiya zan bea ere! Eta...

- Gogoratzen dezu hango ikastolan zer ikasten zenuten edo abesten zenuten? Zer...

- Ez naiz goatzen.

2. Poxpolinak, Kursaalean

- **Erref:** DON-060/004
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:04:45. **Bukatu:** 00:07:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Poxpolinetara joaten ziren, Don Ramon Labordarekin. Dantzak egiten zituzten eta abestiak ikasi, neska-mutillak. Kursaalean. Jaialdiak izaten ziren gero.</p>

Transkripzioa

- Juten giñan poxpoliñeta. Poxpoliña zan Don Ramon Laborda apaiz batek eramaten zuna. Eta horra juten giñan jai genunian. Eztakit, ostegunetan edo. Eta han iten genitun... Hori goatzen naiz beida! Dantzak.

- Dantzak.

- 'Haiñ urrin etxe poxpola' eta dantzak, polit-politak!

- Eta hori nun izaten zan?

- Hori, Kursaaalen.

- Kursaaalen? Orduan, Gran Kursaal.

- Kursaaalen.

- Azpiko aldian ala?

- Bai, azpiko aldian. Kursaaalen.

- Eta neska-mutillak elkartzen ziñeten han?

- Neska-mutillak. Jai genunian. Eta erakusten zizkiguten hori abestiyak, dantzak... Eta Don Ramon Labordak esaten zun, txiki-txikiyak giñan ta nahastu iten giñan, ta esaten zun hori zala denetan politena. Nahastutzia.

- A, bai?

- Txikiyak nahastutzia. Esaten zun beak, Don Ramon Labordak. Esaten omen zun. Ni ez naiz gogoratzen, baño...

- Ez zea gogoratzen. Eta orduko abestiñ batekin edo gogoratzen zea?

- 'Haiñ urrin etxe poxpola' abestuko genun. Ta beste bat... ez naiz goatzen.

- Eta gero, dantza nun iten zenuten? Hor ikasitako dantzak eta gero...

- Ba, ez... hantxe bertan.

- Hantxe bertan.

- Bai. Toki haundi bat zan. Oso toki ederra. Ta hantxe iten zitun jaialdiyak eta.

- Eta jaialdiak izaten ziran gero?

- Bai, bai, bai, bai.

- Eta zuk in zenun dantzan jendian aurrian eta?

- Bai, bai. Ai, ze politak giñan txiki-txikiyak!

- Eta poxpolin jantziyakin.
- Bai, bai.
- Gona gorriya eta...
- Gona gorriya. Goatzen naiz abesti bat pixka bat. Itxoin pixkat. Nola da? Goatuko naiz.
"Begira zeñen polita
nagon alos obekin..." eztakit ze esan nahi dun horrek.
"Haizea jotzen duanean
ikurriña bai diruri
trinka-trinketa
trinka-trinki
Gorontz orlegia eta
gona gorri".
- Ze polit.
- Ondikan goatu iten naiz.
- Bai, bai. Ba oso polita da.
- Ta horrekin dantza iten genuen. Goatzen naiz nola bueltak ematen eta bu... Oso polita.
- Eta ume asko ibili ziñeten han?
- Bai, bai. Asko, asko, asko.
- Ta zuk Don Ramon Laborda aituta izango dezun?
- Bai, bai. Bai, bai.
- Ta gero, andereñuak izaten zitun laguntzalle, baño ez naiz... Eztakit. Izenak eta... ez naiz gogoratzen.

3. Gerra aurreko antzezlanak

- **Erref:** DON-060/005
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:07:47. **Bukatu:** 00:09:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

<p>Antzerkia egiteko txarra zela dio, baina bere ahizpa oso ona zela. Aitak prestatzen zituen antzezlanak. Neskamearen marmarrak antzezlan. Ahizpak hitzaldiak ere ematen zituen, aitak prestatuta.</p>

Transkripzioa

- Eta garai hartan antzerkia ere egiten zan. Zuek juten ziñeten antzerki ikuskizunetara eta?
- Ni oso txarra naiz antzerkiya egiteko e! Antzerkiya egiteko oso txarra naiz ni. Nere ahizpa zan oso ona! Ta ni oso txarra. Ta nere aitak preparatzen zitun antzerkiyak, eta nerekin beti desesperatuta egoten zan. Esaten, "baño nola izan leike hain txarra?". Ta egiya da. Ta nere ahizpa hain ona. Eta, bai. Antzerkiyak egiten zituzten, bai, bai. Ta nik e bai. 'Neskamearen marmarrak' eta.
- Hori zure aitak idatzitakua da ez da?
- Uste det /ustet/ baietz. Baietz uste det /ustet/.
- Eta hor... zuk ze papel edo... ze iten zenun?
- Ni? Ixil-ixilik eon. Nere ahizpa zan hola etxeko andria bezela, ta ni ume txikiya eta hantxe exeri ta eon. Ixilik. Horixe, bestela! Esaten dizut /

esateizut/ oso-oso txarra.

- Ta antzerkiya nun iten zenuten? Nora juten ziñeten?
- Ni ez naiz gogoratzen e. Hori gehiyo goatuko da nere ahizpa. Pixkat haundiyaua zan, eta ona zan eta beak antzerkiyak iten zitun.
- Eta zure ahizpa hitzaldiya ere ematen zitun aitag prestatutakuak?
- Bai, bai, bai.
- Eta ze...
- Nere ahizpa e! Nik ez.
- Zuk ez.
- Nik ez.
- Eta badakizu ze hitzaldi klase zian edo ze?
- 'Neskamearen marmarrak' zan bat. Hori badakit. Ta gehiyo ez naiz goatzen.

4. Ander Arzelus, 'Luzear'

- **Erref:** DON-060/006
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:09:20. **Bukatu:** 00:12:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Politika » Euskara eta politika
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa

Laburpena:

<p>Aita, Ander Arzelus Luzear idazlea eta kazetaria zen. Euskararen alde jardun zuen. El Día egunkarian idazten zuen, Argia astekarian ere bai. Irratiz euskarazko klaseak eman zituen. Luzear ezizena nondik datorren azaltzen du. Oso ezaguna zen.</p>

Transkripzioa

- Eta bueno, zure aitari buruz, ba, ez... idazlia zan kazetaria...
- Bai.
- Pixkat, konta iguzu pixkat nor zan.
- Nere aita zan izugarriya! Lana iten zu euskeran alde. Bere bizi guziya hortako eman zun. Ta oso gutxi ezautu da aita e! Oso gutxi! Zan... Alde guztietan denak azaltzen dia, eta bera ez baleo bezela! Ta eztakit zergatik, baño hola da. Ta nere aitag iten zun, ba, 'El Día' periodikuan idazten zun. Ta hor beak lortu zun euskeraz idaztia. Eta ze gehiyo esango dizut / esangoizut! Eztakit.
- 'Argia' astekarian...
- Baita, baita. Bai hori dena jasota dakat e! (ez du galdetzia nahi). Ta hori, hortako eman zun bere bizi osoa. Euskaragatikan.
- [...] idazten. Kazetari lanetan. Irratia...
- Irratiz ere bai.
- Irratian ere bai.
- Irratiz ere eman zitun klaseak. Euskerazko klaseak.
- A, bai? Irratiz klaseak e?

- Bai, bai, bai.
- Ta ze irratitan?
- Nola zan orduko... Jo, izenetako naiz ni! Bat oso-oso-oso famosua zan hitz eiten zuna. 'Radio San Sebastian' izango zan. Eta lortu zuk nere aitak klaseak euskaraz jartzia irratiz.
- Irrati bidez.
- Bai. Hori ez zun /etzun/ esan nere ahizpak?
- Eztakit.
- Esango zizun, segur aski.
- Ez. Hori ez zidan esan.
- Ez e?
- Baña beste gauza dira iten zitunak!
- Ya. Bai, bai, bai. Asko, asko.
- Ez dezu /eztezu/ esan nola zun izena?
- Ze... nere aitak?
- Bai.
- Izena zun Ander, baño 'Luzear'... 'Luzear' bezela ezagutzen zuten denak.
- Eta hori nundik datorren badakizu?
- Izena 'Luzear'?
- Bai.
- Arzelus alderantziz.
- A.
- Bueno, gutxi gorabehera. Ez da /ezta/ berdiñ-berdiña, baño... Bai. Ta jende, mundu guziyak 'Luzear'-rengatik ezagutzen zuten. Oso ezaguna zan. Antzerkietan ta hori... alde guzietan. Euskera zeon alde guzietan.

5. Jaunartzeko gosaria, batzokian

- **Erref:** DON-060/007
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:12:06. **Bukatu:** 00:13:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Batzokira joaten ziren, Bulebarrera. Lehen Jaunartzea egin zutenean Mujika gotzainak eman zien Jauna, Santa Marian, eta batzokian gosaldut zuten.</p>

Transkripzioa

- Eta gero, eztakit zuen juten ziñeten bueno batzokira edo?
- Batzokira, bai.
- Hor Bulebarrian ezta?
- Bulebarrian zegon batzokiya. Goatzen naiz ni lehenengo jaunartzia in gendunian, eman zigun lehenengo jaunartzia Mujika obispuak, gotzayak eman zigun. Leheno ikusi det argazkiya. Ekarri zazu.
- Zuk nun in zenuten?
- Santa Marin.
- A, Santa Marian?
- Bai, eske orduan ya bitutuko... Ba ez gu Hondarrabi kalian bizi giñan. Santa Marin. Kamariña, badakizu nola daon Koruko Ama Birjiñen kamariña?
- Ez.

- Ba, hori... hor in genun jaunartzia. Eta gero, gu goatzen naiz... goatu iten naiz e! Gosaya in genula batzokiyan, Bulebarrian. Gosaya, jaunartzekua.

6. Gerra garaian, Bilboraino ihesi eta gero Iparraldera

- **Erref:** DON-060/010
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:14:06. **Bukatu:** 00:17:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra hasi zenean Zarautzera joan ziren, eta handik Lekeitiora, gaztelu handi batera. Gero Bilbon denbora pila bat egin zuten, Gran Via kalean. Bonbardaketak. Bodegan ezkututzen ziren. Ez zuten goserik pasatu. Aita euskal gobernukoa zen. Bestaldera pasatu ziren; Habana ontzian joan ziren, eta iritsi ziren geltokian lurtean egin zuten lo. Azkaingo etxe batean egon ziren luzaroan, eta handik Donibanera joan ziren, eskolara joateko. Ez zekien ezer frantsesez, baina hamabost egunean ikasi zuen.

7. Aita kartzelan eta familia Azkainen

- **Erref:** DON-060/011
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:17:53. **Bukatu:** 00:20:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Lau anai-arrebak eta amak egin zuten ihes, eta Eibarko albeditarrek ere bai. Elkarrekin bizi izan ziren bai Azkainen, Iturburua etxean, bai Donibanen. Gero Donibanetik Azkainera joan ziren bizitzera berriro, eta eskola publikora joan zen. Dena frantsesez egiten zuten. Bitartean, aita kartzelan zegoen. Madrilera joan behar zuenean gobernutik, bera joaten zen.

8. Aita, heriotza-zigorrera kondenatuta

- **Erref:** DON-060/013
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:20:28. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aita-eta harrapatu zituzten, eta italiarrek abandonatuta utzi zituzten Santoñan. Heriotza-zigorrera kondenatuta egon zen Burgosen, urte eta erdian. Zortea izan zuen, eta libratu egin zen. Hala ere, sei urte egin zituen kartzelan.

9. Bueltan, Parte Zaharrean bizitzera

- **Erref:** DON-060/015
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 00:23:20. **Bukatu:** 00:27:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Parte Zaharrera joan ziren bizitzera, San Jeronimo kalera, alemaniarak Frantziara sartu zirenean. Elizaran moja ikastetxera joan zen han. Ahizpa eta anaiak beste eskola batzuetan zebiltzan. Dena erdaraz, egunero Cara al Sol abesten. Meza erdian Espainiako ereserkia jotzen zuten. Etxean euskaraz egiten zuten, eta hori amak ez zekiela euskaraz.</p>

10. Magisteritza ikasi zuen Madrilen eta Donostian

- **Erref:** DON-060/017
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:29:11. **Bukatu:** 00:31:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Elizaran ikastetxean ez zuen euskaraz egiten inorekin. Gero, magisteritza egitera joan zen, Grosera. Lagun batzuk eta lehengusua. Orduan etorri zen aita kartzelatik, eta desterratu egin zuten, Madrilera. Hara joan ziren bizitzera. Hantxe egin zuen Magisteritza urte bat eta gero Donostian amaitu zuen karrera.

11. Aita Baionara ihesi

- **Erref:** DON-060/019
- **Iraupena:** 0:04:37. **Hasi:** 00:32:18. **Bukatu:** 00:36:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Madridik bueltan, lehengo lanera bueltatu zen aita, Aurrezki Kutxara. Arazoak izan zituen berriz: antzezlanak prestatzen zituen, euskaraz, eta berehala atxilotu zuten. Mugaz bestaldera egin zuen ihes, Baionara. Han egon zen hil arte. Gaixotu egin zen. 18 urte zituenean ikusi zuen azken aldiz, mendiz joanda; Poliziaren beldurrez, korrika.

12. Aitaren elizkizuna

- **Erref:** DON-060/021
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:37:09. **Bukatu:** 00:39:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Politika » Politika eta Franco
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Aitaren lagun falanjista batek, irrati esataria bera, irratan esan zuen elizkizuna noiz izango zen. Poliziak debekatu egin zieten egitea, eta ordua aldatu zuten. Irratitik esan zuen ordu aldaketa, eta jende mordoan joan zen elizkizunera. Poliziak lurperatu zuen, familia ondoan izan gabe.

13. Dana perfumerian lanean eta gero etxean ikastola

- **Erref:** DON-060/022
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:39:43. **Bukatu:** 00:43:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Magisteritza bukatu zuenean, osaba Manuel bila joan zitzaion, Groseko Dana perfumerian lan egiteko. Gustura zegoen han, baina bere izeba andereñoa moja joan zen, eta Elbira Zipitriak berari eskatu zion joateko. San Jeronimo kalean jarri zuen ikastola.

14. Zipitriaren metodologia

- **Erref:** DON-060/023
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:43:40. **Bukatu:** 00:46:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Elbira Zipitriarekin prestatu zen andereño izateko. Zipitriak ahizpa moja zuen Frantzian, eta harekin ikasi zuen. Nolakoa zen metodologia, bizi-bizia. Kanikak. Gaztelura joaten ziren. Kantuak eta antzezlanak.

15. Lau urteko umeekin

- **Erref:** DON-060/026
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:48:58. **Bukatu:** 00:51:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Multzoak egiten zituzten txotxekin. Lau urteko umeekin ibili zen. Lurrean eserita egiten zuten dena. Mahaiak jaistekoak ziren. Hamar ikasle zituen hasieran, eta azken urtean 30. Etxean hasi zen, gero Santa Mariara pasatu ziren, Orixe ikastolara.

16. Umeak bederatzi urte arte ikastolan

- **Erref:** DON-060/028
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:51:34. **Bukatu:** 00:53:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Gurasoen meritua: egunean bi ordu eraman klasera, eta gainerakoa umeek etxean egin behar zuten. Zaila izan zen. Ondo prestatuta irteten ziren. Bederatzi urte arte egoten ziren ikastolan. Kartilak lortzen zituzten. Erdaraz egiten zuten dena gero.

17. Ikastolak zabaltzen joan ziren

- **Erref:** DON-060/030
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:53:43. **Bukatu:** 00:54:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Ahizpa eta biak hasi ziren isilpeko ikastolan, Elbira Zipitriarekin. Kontxita Beitia, Karmele Esnal... poliki-poliki zabaltzen joan zen. Gero pilatxo bat ziren. 1950ean hasi zen bera, eta 1951n ezkondu zen.

Transkripzioa

- Lehenbizi hasi giñanian, giñan nere ahizpa eta ni, hasieran.
- Ta Elvira?
- Elvira.
- Elvira ere bai, ez?
- Elvira, klaro, Elvira lehenbizi, hori "descontau". Ta gero nere ahizpa ta ni. Ta gero poliki-poliki jun zian, ba, Kontxita, eta Karmele Esnal, eta beste batzuek poliki-poliki zabaltzen jun zan. Ta gero azkenian asko zauden, pill bat, pill, pill.
- Eta zuek, zu ze urtetan hasi ziñan?
- Ni berrogeita hamarrian.
- Berrogeita hamarrian?
- Berrogeita hamarrian hasi nintzan ya, eta berrogeita hamaikan ezkondu nintzan.
- Eta zein zan giro politikoa garai horretan, berrogeita hamarrean? Dana debekatuta egongo zan.
- Bai, dana, dana, dana, dana, dana.

18. Ikastolak legeztatu zituztenean

- **Erref:** DON-060/032
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:55:25. **Bukatu:** 00:58:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Poliziak utzi egiten zien egiten, ez daki zergatik. Bukaeran, esan zieten ezin zutela segitu etxeetan, eta ikastolak sortu behar zituztela. Ikasbidera joan zen orduan. Seme-alabek berarekin ikasi zuten. 41 urte egin zituen irakaskuntzan.

19. Gidabaimena ateratzen

- **Erref:** DON-060/034
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:59:04. **Bukatu:** 01:00:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Gidabaimena nola atera zuen. Senarrak eta amak ez zioten utzi nahi. Haiei ezer esan gabe ikasi zuen, 40 urterekin.

20. Hernaniko dantzaldiak eta kongregazioak

- **Erref:** DON-060/040
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 01:05:17. **Bukatu:** 01:08:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

<p>Hernanira joaten ziren igandetan, autobusean eta trenean. Txartel gabe askotan. Helduta ere egiten zuten dantza. Ez zen kongregaziokoa izan: Mariaren alabetara joan zenean, esan zioten galtzerdiak erabili beharko zituela eta berak ezetz. Tabernara ere sartzen ziren, mutilekin.</p>

21. Gosea eta hotza, gerraostean

- **Erref:** DON-060/043
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 01:10:30. **Bukatu:** 01:13:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Gerraosteko gosea. Errazionamendua. Ogia txarra eta babarrunak olio gabe. Zabalo medikuak jateko esan zion. Amak ogi truke ematen zituen eskolak. Hotza egiten zuen etxean, eta salamandra berogailua jarri zion amak gelan. Txokolaterik ez zuen inork.</p>

22. Umetako gaiztakeriak

- **Erref:** DON-060/046
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:17:22. **Bukatu:** 01:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Umetako gaiztakeriak. Izeba baten etxean egoten ziren asko anaia eta biak. Aurreko etxeko maindireak zulatu zituzten, eskopetarekin. Txirrindua eta patinak ere bazituzten.</p>

Transkripzioa

- Gu're elementuak giñan e? Ni eoten nintzan ni asko nere izeba baten etxian. Nere anaia ta ni Madriden oso gutxi eon gea, zeren berehala bukatu bezain laister trena hartu ta Donostira etortzen giñan. Ta etortzen giñan nere izeba baten etxea, ta nere lehengusu batzuen etxea. Eta hor bizi zian Grosen Usandizaga kalia, eta "con las escopetas de perdigones", ez genitun ba maindire batzuk zulatu aurreko etxeak...!

- Leihotik? Leihotik perdigoia botata?

- Bai, bai. "Qué elementos".

- Eta enteratu ziran ala...?

- Bai, bai, enteratu ziran, bai, izan genun ederrak haren [...] hor izerekin. Gauza hoiak ez dia kontatzen.

- Eta bihurrikeria asko iten zenuten ala?

- Bueno, bueno, ez haundiyak e?

- Haundiyak ez, baiña batzuk bai.

- Baiño "elementillos" giñan. Txirrindakin ta ibiltzen giñan erua bezela.
- Txirrinda bazenuten orduan?
- Bai, bai, ta patiañak.
- Ta txirrinda jende askok ez zeukan ezta?
- Guk bagenun, esan nahi det, gure ingurukoak bai bagenun denak. Denak bagenun.

23. Aita euskara erakusten, kartzelan

- **Erref:** DON-060/048
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:19:18. **Bukatu:** 01:21:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Aita kartzelan zegoela, euskarazko klaseak ematen egon zen, Burgosen. Koldo Mitxelena zen ikasleetako bat. Gramatika bat egin zuen, erakusteko. Nor-Nori-Nork sistema ez zen artean ezaguna.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com